

## 35. INFORMAZIO FITXA

## UXINA ZIDORRA

### KOKALEKUA

**Udalerria**

Zamudio

**Udalerraren kod.**

905

**Eskualdea**

Bilboaldea

**Kartografia**

Bizkaiko Foru Aldundia (1:5.000)

**Orriak**

06124

06217

### FITXA TEKNIKOA

**Homologatua**

EZ

**Gutxi gorabeherako denbora**

45 minutu

**Gehieneko desnibela (m)**

30

**Luzera (km)**

3

**Zailtasuna**

Erraza

**Trazatu mota**

Biribila

**Ibilbidearen hasiera**

Torrelarragoiti industrialdea


**Ibilbidearen amaiera**

Torrelarragoiti industrialdea

**Interesa**

Natura, arkitektura, etnografia

**Ibilbidearen profila**



**Mapa/Krokisa**



### **Nola Iritsi**

Zamudioko hirigunea BI 737 errepidearen ondoan dago. Bertara Lezamatik iritsi ahal da, Erletxetik (ekialdeko sarbidea) edo Asuatik nahiz Deriotik (mendebaldeko sarbidea). Hiriguneko bi muturretan, Torrelarragoiti industrialderako sarbide seinalezatuak daude. Beste aukera bat Txorierriko saihesbidetik joatea da, industrialde horren irteeraraino. Halaber, garrario publikoaren linea erregularrak ere badaude Zamudiora (autobusa eta tren).

### **Deskribapena**

Algortako Ibilbidea Torrelarragoiti industrialdeko errotondan hasiko dugu; errotonda hori Txorierriko saihesbidearen adarraren amaieran dago, Lezama udalerraren mugan. Ibilbideari buruzko informazio panelak eta norabideko balizak bidea adieraziko digute; bide hori pasealekutzat egokiturik dago, zagorrazko gainazaleko denabak erako tratamenduarekin. Haritzen basotik harrizko zubi zahar batera helduko gara; horren aurrealdeko inskripzioan Lezamaren eta Zamudioren arteko udalerrimuga dago adierazita, eta leku horretan bideak bat egiten du Lezamatik Bilborako antzinako errege-bidearekin eta Done Jakue bidearekin; hortik jarraituko dugu bigarren zubira heldu arte eta zubi horrek egoera txarreko harlangaitzezko zubi zahar bat ordeztu du. Zubi hau zeharkatzean, larredi batzuetara helduko gara, eta bertan, oraindik eta lauza handiko antzinako galtzadaren aztarnak daude; galtzada hori, oinezkoen bidea egokitzeko lanekin, guztiz desagertuta dago. Oinezkoen bideko plataforma egokitutik jarraituko dugu, eta hori Uxina errekarantz desbideratzen da, Bilborako errege-bidearen trazatua utzita. Txorierriko saihesbideko bidezubiaren azpitik zeharkatuko dugu zubia, eta ibaiarekiko paralelotara doan legarrezko bidea hartuko dugu Uxinarantz. Uxina baserriaren aurrean, Larragoiti dorretik iritsitako asfaltozko bidea hartuko dugu. Larrez eta laborez beteriko nekazaritza eta abeltzaintza inguru horretan, 50 m inguru egin ondoren, bidea berriro ere legarrezkoa da, eta azken 350 m-etan (gutxi gorabehera) hasierako tratamendu berarekin egokituta dago. Larragoiti dorrean iritsiko gara, izen bereko industrialdearen ondoan (ibilbidearen abiapuntua).

## IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK

### Trazatua

Ibilbideko zorua, zatirik handienez, legarrezko bidea da, eta legarrezko nahiz asfaltozko bide-zatiak ditu.

### Gurpil-aulkietarako gauza

Bai

### Norabideko seinaleztapena

Ibilbide osoan norabideko balizak daude.

### Informazioko seinaleztapena

Ibilbidearen hasieran informazio panel bat dago eta ibilbide osoan interpretazio panelak daude.

## ARGAZKIAK

Informazio panela Uxina zidorrean.



Ibilbideko baliza bat.





Sustatzailea:

*Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea*

Kontsultorea:

*NK gestión ambiental y cultural S.L.*

Urtea:

2005

**Pasealekutzat egokituriko bide-zatia.**



**Bide-zatia zubietariko baten ondoan.**



**Interpretazio panela bidean.**



## BALIABIDEAK

### Lezamatik Bilborako errege-bidea

Bilboko bide nagusienetarikoa bat izan da Erdi Aroan; funtsezko eginkizuna izan du Bizkaiko Jaureriaren eta foruen garapenean. XVII. mendeko agiri batean “errege” eta “gurdi nahiz bidaiari” bidetzat agertzen da. Trazatua Done Jakue bidearen eta Zin Bidearen barruan dago.

### Hariztia

Harizti hau Uxina erreka-aren bi ertzetatik hedatzen da; bidearen zati batetik bestera, basoaren trinkotasuna, loturiko espezieen osaketa eta naturaltasun maila aldatu egiten dira. Habitat honetan dibertsitate handia dago intsektuen, txorien eta ugaztun txikien faunaren aldetik.



### Uxina erreka

Asuaren ibaiadar honek Txorierrri harana zeharkatzen du (Bizkaia osokorik irekienetarikoa). Erreka zatirik handiengan kanalizaturik dago eta meandro itxurako trazatua dauka; ertzetan, baso mistoko ohiko espezie batzuk daude (haltza, sahatsa). Errekaren uretan ezkaile arraina, igel arrunta, apo arrunta eta abar bizi dira.



### Zubiak

Ereaga Bi zubi txiki zeharkatuko ditugu. Lehenengoa harlanduzkoa da, puntu-erdiko bao bakarrekoa eta argitasun handikoa; ondo sartzen da XVIII. mendeko zubien eraikuntza tipologian. Aurrealde batean harginaren markak ditu, arkuaren erdiko dobeletan: gurutzea eta alde bakoitzean letra bat, L eta Z, Lezamaren eta Zamudioren hasierako letrak; bi udalerrien arteko mugatzat hartzen da. Bigarren zubia berreraikita dago eta harlanduzko egindako jatorrizko zubia ordeztu du (estilo herrikoikoa eta begi bakarrekoa, eta egoera txarrean zegoen, materialak txarrak izatearen eraginez).



### Landazabalaren paisaia

Nekazaritza eta abeltzaintza sektorea oraindik ere garrantzitsua da haranean, eta sektore hori industria eremuen garapenarekin batera bizi da.



---

### Larragoiti dorrea

Erdi Aroko eraikin hau leku estrategikoan kokaturik dago, Lezamatik Bilborako bidea kontrolatzeko. Gaur egun, kanpoko egituraren zati bat baino ez da kontserbatzen, eta berreraikitzeko lanak egiten ari dira.



---

### Zamudioko Arteaga auzoa

Zamudioko auzo honetan San Martin eliza eta, horren ondoan, Zamudio edo Malpika dorrea dago; defentsarako berreraikitako dorre hau seguritik Butroi familiak egin zuen XV. mendeko erdialdean; XVIII. mendean Malpika familiaren jabetzakoa izan zen eta horiek laborantzako etxetzat erabili zuten. Hormetan behe Erdi Aroko bizimoduak (Bizkaiko Jaurreriko leinu nagusien bizimoduak) ondoen jasotzen duen monumentuetariko bat dela esaten da. Zona honetan Udaletxea eta herri arkitekturako beste eraikin batzuk ere badaude.



### Lezama

Erdi Aroko oinetxe eta dorre askok Erdi Aroko sustrai sendoak adierazten dituzte. Besteak beste, aipagarriak dira Basabil eta Aretxabaleta etxea (X. mendekoa), Oxangoiti etxea (1024koa), Isuskiza orube-etxea eta Lezama dorrea (XIV. mendekoa, Jaurerriko leinu nagusienetarikoa baten bizilekua izan zena). Arkitektura erlijiosoan aipatzekoa da Andre Maria eliza, X. mendean eraikia, eta hori XVIII. mendera arte lurperatzeetarako lekutzat erabili zuten. Barruan gangak, bost aldare eta elizpe ederra ditu. Era berean, aipagarriak dira San Vicente Martiria eta Kristo Santua basilizak. Eta, futbola atsegin dutenentzat; Bilboko Athletic taldearen entrenamenduak Lezaman egiten dira.





## **EKIPAMENDUAK**

### **Aulkiak eta paperontziak**

Ibilbidean aulkiak eta paperontziak daude.



### **Aparkalekua**

Industrialdeko aparkalekua.



## ZERBITZUAK

### Ostatuak

Zamudion: Aretxarte eta Artea Errota hotelak eta Labiti Aurrekoa nekazaritza-turismoa.

---

### Tabernak eta jatetxeak

Zamudion eta Lezaman ostalaritza eskaintza dago.

---

### Garraio publikoa

Bizkaibus: A3223 linea (Bilbo-Larrabetzu) eta A3224 linea (Bilbo-Derio-Parke Teknologikoa).

Euskotren: Bilbo-Lezama linea.

---

## OHARRAK

Ibilbidearen erraztasunak eta denbora laburrak, nahi duenari, aukera ematen dio Zamudio eta Lezama guneak bisitatzeko, Larrabetzura hurbiltzeko eta beste ibilbide labur bat egiteko, 32. fitxan jasotakoa: Done Jakue bidea Larrabetzun (Astoreka-Goikoelexalde).